

# AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA

Trapagarango Udalak, Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentziaren bidez, doako ikastaro berri bat jarriko du abian **20 langaberentzat. Udal kutxek finantziatuko dute oso-osorik** ekintza hau. Izan ere, aisialdiko begirale ikastaro bat izango da eta, amaitu ostean, **Eusko Jaurlaritzaren agiri ofiziala** eskuratuko dute parte-hartzaileek.

**200 teoria-ordu** izango ditu, **gure herrian emango direnak maiatzaren 4tik ekainaren 26ra, 9:00etatik 14:00etara eta 120 praktika-ordu**, aisialdiko taldeetan, ludoteketan eta abar emango direnak.

Izena eman ahal izateko honako **baldintzak** bete beharko dira:

- Trapagaranen erroldatuta egotea
- Langabezian egotea eta Lanbiden izena emanda
- 18 urte izatea 2015eko ekainaren 30ean (Praktikak hasteko aurreikusitako data)

Eta egin ahal iznago dute **Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentziara joanda, martxoaren 30etik apirilaren 15era**, honako **agiriak** eramanez:

## DERRIGORREZKOAK

- Izena emateko orria (erantsitako eredua)
- NANaren fotokopia
- Lanbideren txosten eguneratua inskripzio-aldiei buruzkoa (altak eta bajak)
- Lan-bizitza eguneratua, Gizarte Segurantzak emana
- Curriculum Vitae, karnet tamainako argazkiarekin

## BORONDATEZKOAK

- Boluntariotza egin duen enpresa edo elkartearen ziurtagiria
- Euskaraz dakiela egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiria